

## EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2013-2016

Patxi Baztarrika Galparsoro

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Legebiltzarreko agerraldia, 2014ko urriaren 14an

Sailburuak gogorarazi digun bezala, Jaurlaritzaren Gobernu Programan jaso dugu honako helburu hau: ***“Hizkuntza politika gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa ezartzeko beharrezkoak diren arauzko tresnak eta sailen arteko lanabesak garatzea”***

Izan ere, euskal gizarteak, joandako hiru hamarkada hauetan, argi eta garbi erakutsi du gizarte elebiduna izan nahi duela. Herritar asko eta asko dira, gero eta gehiago, euskaraz -edo euskaraz ere- ohikotasunez aritu eta bizi nahi dutenak, euskaraz -edo euskaraz ere- neurri handi batean bizi direnak. Gero eta gehiago dira aukera berdintasuna hizkuntzan ere eskatzen dutenak.

Gizartearen gogo hori legeak babestua dago: bi hizkuntza ofizial ditugu gizartean. Autonomia Estatutuak eta Euskararen Normalizaziorako Legeak euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen diete euskal herritar guztiei. Eta herri aginteei eskubide hori bermatzeko obligazioa ezartzen diete. Euskararen Legeak arloz arlo zehazten ditu eskubideak eta betebeharrak euskararen erabilera normalizatzeko bidean.

**Asko aurreratu dugu euskararen egoeran. Ezagutzari dagokionez, euskara dakitenen kopurua etengabe ari da hazten.** EAEn 5 urtetik gorako biztanleen % 36,4 elebiduna da, eta % 19,3 elebidun hartzailea. Azken 30 urteotan oso gutxi hazi da biztanle kopurua, ia batere ez: duela 30 urte baino 38.000 biztanle gehiago ditu gaur EAEk, besterik ez. Baina duela 30 urte baino 318.000 hiztun gehiago ditu euskarak gaur, eta 400.000 erdaldun elebatar gutxiago. Gaur egun 25 urtetik beherako gazteen artean lautik hiru euskaldunak dira, eta duela 30 urte bostetik bat besterik ez ziren.

**Erabilera ere handitu egin da; EAEn gero eta gehiago dira euskara erabiltzen duten pertsonak.** Biztanleen % 20k euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen du, eta beste % 8,9k ere erabiltzen du euskara, nahiz eta gaztelania baino gutxiago. Gazteen artean eta eremu formaletan (zerbitzu publikoetan) igo da batez ere eta oso nabarmen erabilera. Ahulago dabil esparru ez formaletan.

Irakaskuntza elebatar erdaldunetik irakaskuntza elebidunera igaro gara, eta euskarazko irakaskuntza da hezkuntza ez unibertsitario osoan proportziorik altuena duena. DBHko ikasleen 10etik ia 9k, gurasoen erabakiz, euskaraz egiten dituzte ikasketak, osorik edo partzialki. Unibertsitatean toki garrantzizkoa irabazi duen bezala, tokia irabazi du hedabideetan ere euskarak; eta, nola ez, baita administrazio eta zerbitzu publikoetan ere, sekula izan ez duen bezalakoa. Kulturgintzari edo lan munduari erreparatuta ere, bistan da aurrerakada. IKTen

munduan ere pisu handia du gure hizkuntzak: esaterako, **wikipedia**, **hainbat eta hainbat estatu hizkuntza ofizialetan baino artikulu gehiago daude euskaraz, eta interneteko lehen 50 hizkuntzen artean dago gure hizkuntza.**

**Aurrerantz egin dugu 30 urteotan. Baina bidea ez da amaitu. Asko indartu da euskara, baina nahi baino ahulago dago. Orain, gure eta ondorengo belaunaldien erronka da euskararen jarraipena eta garapena bermatzea; euskararen hazkunde iraunkor bat bermatzea. Agenda Estrategikoaren leloak dioen bezala, *bizikidetzarako hizkuntza bizia izatea baita euskararentzako nahi dugun etorkizuna.* Eta, iraunkortasun edo sostenibilitate horretarako, hizkuntza bizia izateko, euskarak behar du gaur duen baino erlazio askoz orekatuagoa gaztelaniarekin. Horretarako, euskararen erabiltzaile gehiago behar ditugu, eta euskaradunok erabiltzaileago izatea behar dugu.**

Izan ere, bi hizkuntzak ditugu ofizialak, berdintasun formalean bizi dira elkarren ondoan, baina ez daude inondik ere berdintasun egoeran gizartean. Hiru hamarkadetan euskararen normalizazioaren alde urrats oso garrantzitsuak egin ditugun arren, oraindik asko falta dugu gizarte bizitzan egiazko berdintasun egoera batera iristeko.

Horregatik, euskaren normalizazioaren aldeko sustapen lana hizkuntzen elkarbizitzaren aldeko lana da, eta baita bizikidetzaren sozialaren aldekoa ere. Euskal gizartearen kohesioa sendotzen du. Gizarte berdinkideagoa egiten du, hizkuntza kontuetan ere.

Joan den astean Europako Kontseiluaren ordezkari bat izan da Espainiako Estatuan Eremu Urriko Europako Itunaren betetze maila aztertzerantz etorrita. **Europako Kontseiluaren Adituen Batzordeko buruak, Gabor Kardos jaunak, astelehenean jendaurrean adierazi zuen hitzez hitz honako hauxe: “argi dago euskararen kasuan luzera begirako politika bat egin dela, eta emaitza garrantzitsuak izan dituela”.**

Bat gatoz Kardos jaunarekin, eta uste dugu politika horrek jarraipena behar duela, jarraipen eraginkorra eta eguneratua. **Iraganean egindakoaren bultzadaz eman du euskarak berealdiko jautzia EAEn: lege babesari esker, herri aginteen konpromisoari eta hizkuntza politika aktiboari esker, gizarte ekimeneko hainbat elkarte eta enpresari esker, hainbat euskaltzaleren ekinari esker, milaka irakasle eta gurasori esker, euskal gizartearen gehiengo zabalaren atxikimendu eta gogoari esker, adostasun sozial eta politiko zabalari esker. Etorkizuna, ordea, ez dago ez erabakita, ez bermatuta. Egunero eraikitzen da etorkizuna.**

Hain zuzen ere etorkizun hori eraikitzeko bidean eraginkorrak izateko, eta euskara eta gaztelaniaren arteko desorekaren *kronifikazioa* eragotziko duen hesia eraikitzen jarraitzeko helburuarekin osatu dugu Euskararen Agenda Estrategikoa. Hizkuntza ofizialen artean aukeratzeko askatasuna eslogan bat ez baizik eta herritar guztientzat errealitate izatera iristea dugu helburu. Klabe horretan eta izpiritu horrekin ulertu behar da

Jaurlaritzaren Euskararen Agenda Estrategikoa. Etorbizuna eraikitzeak denon inplikazioa eskatzen duenez, esan dezagun Agenda hau dela Jaurlaritzaren lau urteotarako inplikazioaren eta konpromisoaren erakusgarri. Gainontzeko eragile publiko eta pribatuekin elkarlanerako luzatzen dugun ekarpena da hau.

**Ilusio berri bat, bultzada berri bat behar du euskarak. Euskararen bizi-indarra daukagu jokoan: Etxepareren plazan eta gure geure lagunartean, langiroan eta etxeko salan ohikotasunez erabiltzen dugun hizkuntza izatea. Erabiltzea baita balio duen errezeta bakarra. Eta horrek denon inplikazioa eskatzen du, neurri diferentetako inplikazioa, baina denon inplikazioa. Denon inplikaziorik gabe, herren ibiliko gara. Hori ezin baita egin inoren kontra, hori ezin baita egin herritarren gogo eta atxikimendurik gabe: gogoa da, atxikimendua da, giltzarri nagusia. Baina ez da giltzarri bakarra. Gogo hutsarekin ere ezin da. Gogoa ere hauspotu egin behar da, eta arnasbidea eman behar zaio gogoa duenari. Horretarako dira beharrezkoak lege babesa, herri-erakundeen hizkuntza politika eta plangintza, sustapena, baliabideak, gizarte ekimena, herri aginteen eta gizarte ekimenaren arteko elkarlana.**

Hori da Agenda Estrategikoaren funtzioa: horretarako guztiorretarako Gobernuak jartzen duen tresna eta konpromisoa da Agenda.

Hizkuntza politika iraunkorra (edo sosteniblea) eta eraginkorra garatzea da Jaurlaritzaren konpromisoa, eta Agenda Estrategikoa horretarakoxe tresna integrala da. Hizkuntza politika horrek dituen helburuak eta printzipioak dira Agendak berak dituenak ere: helburua da euskararen erabilera normalizatzen jarraitzea, hemengo bi hizkuntza ofizialen arteko aukeraberdintasuna eta herritar guztien hizkuntza askatasuna efektiboki bermatzera gerturatzeko bidea egiten jarraitzea alegia; eta **printzipioak dira, Euskararen Legean eta Eremu Urriko Europako Hizkuntzen Itunaren 7. artikuluan jasotzen den hizkuntza ahulenaren aldeko ekintza positiboa, progresibitatea, adostasun sozial eta politiko ahalik eta zabalena, eta elkarlan publiko-pribatua.** Helburu eta printzipio horiei loturik, Euskararen Agenda Estrategiko honen eta, oro har, hizkuntza politikaren ildo eta esparru guztietan, administrazioaren eta gizartearen arteko elkarlana bilatu eta sustatzen jarraituko du Eusko Jaurlaritzak, euskalgintza instituzionalaren eta euskalgintza sozialaren arteko sinergiak sendotzeko eta indarrak bateratzeko. Denok gara beharrezko, denok daukagu denon beharra eraginkorrak izango bagara.

### **Zer da Euskararen Agenda Estrategikoa?**

- Hizkuntza politikaren arlorako Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 aldirako duen dokumentu estrategikoa.
- Jaurlaritza osoaren plana eta egitekoa da, zeharkakotasunaren ikuspegitik egina. Ez da soilik HPSren Plana, gobernu osoaren Plana da, Sail guztiena.

- Euskararen inguruan legegaldi honetan dagoeneko abian diren ekintzak bildu eta berriak definitzen eta sistematikoki ordenatzen dituen plana, zehar-lerro gisa kudeatzeko.
- Euskara 21 eta haren ondorioz etorritako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP dira Euskararen Agenda Estrategikoaren oinarri eta abiapuntu.
- Jakina denez, ESEP da datozen hamar urteetarako hizkuntza plangintzarako marko orokor eta estrategikoa, Euskara 21en finkatutako ondorio nagusia –EBPN eguneratzea- betetzera etorria. Duela urtebete, legebiltzarrak, hain zuzen ere Batzorde honek berak, berretsi egin zuen ESEP, eta 20 ebazpen onartu zituen ESEP gauzatzeari lotuak. Agenda Estrategikoa hain zuzen ere da Jaurlaritzak bere jarduera eremuan lau urteotan ESEP gauzatzeko osatu duen ibilbide-orria.
- ESEPen eta Euskara 21en jasota dauden lan-ildoak dira Agendako lan-ildoak. Horrela, beraz, Euskara 21eko 14 lehentasunezko ildoak jasota daude, eta Agendako ekintzetariko asko ESEPen jasota daude ekintza gisa. Badira beste batzuk ESEPetik harantzago Agendan bertan lehen aldiz egin diren zehaztapenak, adibidez, eta gutxi batzuk besterik ez aipatzearen: lanbide heziketa eta batxilergoan B ereduaren planifikatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren lege-esparruan euskara ikastaroak jasotzea, Arartekoaren eta Elebideren arteko lankidetzak, “Auzia euskaraz” programa, telebistako zine eta serietan euskarazko azpitoluak, eta abar.
- ESEP gauzatzeko herri-erakunde bakoitzak bere plan estrategiko propioa egin eta onartu beharko du. Hori da Jaurlaritzak egin duena. Herri-erakunde nagusien artean, Jaurlaritzaren Agenda Estrategikoa da ESEP gauzatzeko helburuarekin egin eta onartu den lehen dokumentu estrategikoa.
- Agenda Estrategikoaren osagai dira, bertan zehazten diren ekintza guztiez gain, euskararen erabilera normalizatzeko bost Plan sektorial hauek ere:
  - Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia (V. Plangintza, 2013-2017)
  - Osakidetzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana (2013-2019)
  - EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntzen Erabilera Normalizatzeko Plana (2011-2020)
  - EITBko Euskararen Erabilerrako Plana (2013-2016)
  - Ertzaintzaren Euskararen Erabilera Sustatzeko I. Plana (onartzean)

### **Euskararen Agenda Estrategikoaren zifra nagusiak**

Euskararen Agenda Estrategikoak 13 lan-ildo definitzen ditu. 13 lan-ildo horietan, zehazten dira 34 ekimen edo jarduera-alor eta 168 ekintza.

Ekintza horietatik, % 60 abian jarrita egongo da 2014ko amaierarako, eta % 75 2015eko amaierarako. Agendaren indarraldiaren amaieran, 2016ko bukaeran, ekintzen % 90etik gora abian izango dira.

Bestalde, eta lehentxeago azaldu dudanez, agendak, 168 ekintza horiez gainera, 4 Plan sektorial jasotzen ditu (Jaurlaritzaren V Euskara Plana, Justizia Administrazioa, Osakidetzaren II. Plana eta EITBrena; laster etorriko da bosgarrena, Ertzaintzarena).

Euskararen Agenda Estrategikoaren helburua da **aurrerapauso neurgarriak** egitea, Agendan bertan zehazten diren 15 arloetan. Horien guztien ebaluaziorako 38 adierazle jasotzen ditu.

Aurrerapauso neurgarriak zehazki honako 15 esparru hauetan ematea finkatzen da Agenda Estrategikoan:

- Euskal biztanleriaren euskara-gaitasun orokorrean.
- Euskal biztanleria elebakarraren euskarazko oinarritzako ezagutzan.
- Euskal herritarren euskararen erabileran.
- Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskarak lan-hizkuntza gisa duen erabileran.
- Euskal biztanleriaren euskararekiko atxikimenduan.
- Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskara zerbitzu hizkuntza gisa orokortzera bidean.
- Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoetan euskararen presentzia sendotzera bidean.
- Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien eta organoen jardun publikoan euskarak duen erabilera mailan.
- Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako herri agintearen arteko harremanetan euskarak duen erabilera mailan.
- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan.
- Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien hizkuntza-gaitasunean.
- Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien euskararekiko atxikimenduan.
- Merkataritza gune handietan eta zerbitzu unibertsalak (ura, elektrizitate, gas hornitzaileak eta beste) ematen dituzten enpresa handietan kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak duten betetze mailan.
- Merkataritza eta ostalaritza orokorraren arloko euskararen erabileran.
- Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskarak dituen baliabideetan eta erabileran.

### **Euskararen Agenda Estrategikoaren antolamendua eta kudeaketa**

**Antolamenduari** dagokionez, Agendaren gidaritza Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio, baina kudeaketa eta jarraipenerako bi organo ditugu (**Batzorde Eragilea** eta **Jarraipen Batzorde Orokorra**). Organo horietako partaide, modu batera edo bestera, Jaurlaritzako Sail guztiak dira, eta hainbat organismo eta sozietate.

- **Batzorde Eragilea:**
  - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

- HABE
  - Etxepare Euskal Institutua
  - Hezkuntza Sailburuordetza
  - Kultura Sailburuordetza
  - IVAPeko Euskara Zuzendariorde
- **Jarraipen Batzorde Orokorra:**
    - Batzorde Eragileko kideak +
    - Herri Administrazio eta Justizia Saila
    - Jaurlaritzaren sailetako Euskara Atalak

**Kudeaketari** dagokionez, Agendaren **Kudeaketa Plana** egingo da urtero, arloz arloko arduradunak, ekintzak, epeak eta diru-baliabideak jasoz. Halaber, ekintza horiek burutzerakoan eragindako sektoreekiko harremana eta partaidetza sustatuko da. Kudeaketa Plan honetako ekintzak garatzeko egokiak diren jarduketak administratiboak burutuko dira: diru-laguntza deialdiak, lankidetzak-hitzarmenak, araudiak...

**Parte-hartzeari** dagokionez, Eusko Jaurlaritzako departamentu guztiak ez ezik, gainerako herri erakundeak, Euskararen Aholku Batzordea, HAKOBA eta askotariko gizarte-eragileak izango dira Euskararen Agenda Estrategikoaren garapenean neurri batean edo bestean parte-hartzaile nagusiak.

Esan beharrik ez dago, ekintzak garatzerakoan, kasuan-kasuan dagokion eragilearekin harremanean arituko da arlo horren ardura duen organoa.

### **Euskararen Agenda Estrategikoaren kostuen aurreikuspena**

Agendak, noski, baliabideen aurreikuspena egiten du. Aurreikuspen hori 2014ri dagokio. Agendan jasotzen diren zenbatekoak Eusko Jaurlaritzaren 2014ko aurrekontuetan dauden dotazioak dira. Legebiltzar honetan 2014rako onartutako aurrekontuan jasota dauden dotazioak dira. Gure aurreikuspena da, eta hori da Agendan jasotzen dena, 2015 eta 2016an ere gutxienez antzeko kredituak izango direla Agendaren garapenerako. Hori, nolahi ere, aurreikuspena da, eta Legebiltzar hau izango da dotazio horiek edo beste batzuk urtez urte onartuko dituenak. 2014ko aurrekontua oinarri hartuta, Euskararen Agenda Estrategikorako aurtengo inbertsioa 111.801.230 eurokoa da.

### **Euskararen Agenda Estrategikoaren edukia**

Agendaren eduki nagusien perspektiba bat zuei emateko, aipatu ditugun 13 lan-ildo nagusiak azalduko ditut.

## **Euskararen Agenda Estrategikoaren 13 lan-ildoak**

Agendak jasotzen dituen ekintzak, 13 lan-ildotan biltzen dira, honako hauek hain zuzen ere:

- Ezagutza eta erabilera
- Arnasguneak
- Familiak
- Hiri handiak
- Elebidun pasiboak
- Kultur kontsumoa
- Etorkinak
- Komunikazio estandarrak
- Hizkuntza eskubideak
- Euskarazko jardunaren erakargarritasuna eta prestigioa
- Informazio eta komunikazio teknologiak
- Akordioa hizkuntza politikan
- Kanpo proiektzioa

13 lan-ildoen azalpen orokor bat egingo dizuet, oso gaintik egindako azalpena izango da.

**1.- Ezagutza eta erabilera**ri dagokionez, hizkuntza jakitea da erabilera ezinbesteko baldintza, nahiz eta ez den behar bestekoa erabilera bera bermatzeko. Bi esparru horiek, ezagutza eta erabilera, ondorengo belaunaldietan sendotzea izango dugu helburu.

Ezaguerari dagokionez irakaskuntza sistemaren garrantzi erabakigarria kontuan izanik, helburua izango da ikasleek, euskara ardatz duen eskola eleaniztunaren bitartez, bi hizkuntza ofizialak, ahoz eta idatziz, era egokian erabiltzeko gaitasuna eskuratzea. Eta aspaldiko hutsunea bete nahiz, **Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza sendotu eta B eredia ezartzeko plangintza jarriko dugu abian. Baita batxilergoan ere. Bestalde, helduen euskalduntzearen alorrean, 14 urteren ondoren, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum berritua onartuko du HABEK, eta lehen aldiz, Europako Markoaren A1 eta A2 mailak definituko dira, euskararen oinarrizko ezagutza era masiboan zabaltzeari ematen diogun garrantzia azpimarratzeko. Honela, Europako Markoaren aurreikuspen guztiak beteko ditu lehen aldiz euskarak **(guztira 28 ekintza ezagutzaren arloan)**.**

Erabilera dagokionez, eta euskara bizia lortzeko helburuarekin, aisialdia, kirola, kultura eta bereziki gazte munduko komunikazioa hartu behar dugu kontuan, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko ekimen planifikatua eta hedabideen funtsezko zeregina inola ere ahaztu gabe **(guztira 33 ekintza erabilera arloan)**.

**2.- Euskararen arnagune**ei dagokionez, eta kontuan izanik esparru funtzionalak nahiz geografikoak izan daitezkeela arnagune, arnagune horiek definitu eta ezartzeko irizpideak lantzea izango da lehen pausoa **(guztira 5 ekintza arnagune geografikoen arloan)**.

**3.- Familia bidezko transmisioa** zaindu eta indartzea da Agenda honen oinarritzko ideia bat. Oso garrantzitsua da guraso berri guztiak jabetzea beren euskararekiko jarrerak eta erabilerak umeen hizkuntzaren jabekuntzan eta ohituretan duten eraginaz, eragin itzela. Datozen urteotan berriazko ahalegina egingo dugu sentsibilizazioaren alorrean, fokua guraso euskaldun berriengan eta bikote mistoetan jarriz (**guztira 8 ekintza familia bidezko transmisioaren alorean**).

**4.- Hiri handietako euskararen erabilera** hizpide hartuta, badakigu XXI. mendea hirien mendea dugula.

Euskal hiztun gehienak hiri handietan bizi dira gaur egun, baina hiztun dentsitate apaleko esparruak dira oraindik hiri handiak, aldeak alde.

Euskarak zelai hori ere bere esparru natural egitera iritsi behar du, ezinbestez. Beraz, Agendaren bitartez, sustatuko dugu hirietan euskararen presentzia esparru ez formalean ere ohikoa izatea, batez ere gazteei begirako jardueretan (**guztira 8 ekintza hiri handien arloan**).

**5.- Euskaldun hartzaileak**, elebidun pasiboak, areagotu egin dira.

Agendaren helburuetako bat da euskararen mundura ahalik eta pertsona gehien erakartzea, neurri batean edo bestean. Euskara ulertu eta zerbait erabiltzeko gai denak, euskal hiztunen erabilera aukerak areagotu egiten ditu. Helburu garrantzitsua izango da erdaldun elebakarren multzoa gutxitzea eta euskal elebidun pasiboaren multzoa areagotzea herritar helduen artean (**guztira 10 ekintza ezagutza pasiboaren arloan**).

**6.- Kultur kontsumoa** da, nola ez, eragin beharreko beste eremu garrantzitsu bat. Alor honetan, kalitatezko sorkuntza propioa dugu oinarri nagusia, mimetismoetatik urrunduz. Ezinbestekoa da euskarazko sorkuntzari eta euskaraz sortutakoaren kontsumoari eragiten dieten faktoreak aztertzea, bata zein bestea nola sustatu eta indartu erabakitzeko. Arreta jarriko dugu telebistako zine eta serieen azpigitulazioan (**guztira 8 ekintza kultur kontsumoaren arloan**).

**7.- Euskara etorkinengana hurbiltzea** da, zalantzarik gabe, gure garaiak ezartzen digun erronketako bat.

Azken urteotan hasitako bideari jarraipena emanez, eskolarekin, euskaltegiekin, toki erakundeekin eta gizarteratzearen arloko elkarteekin nahiz etorkinen elkarteekin lankidetzan, etorkinak eta haien seme-alabak euskarara hurbiltzeko eta euskal kulturaz jabetzeko egitasmoak bultzatuko ditugu (**guztira 5 ekintza etorkinen arloan**).

**8.- Euskararen komunikagarritasuna eta adierazkortasuna** etengabe landu eta garatu behar dira hizkuntza biziaren perspektiban. Hizkuntzak malgutasuna, zehaztasuna eta bizitasuna irabaz ditzan lan egingo dugu, gune geografiko euskaldunen eredugarritasuna kontuan hartuz

eta hizkuntza baliabideak erabiliak izan daitezen bultzatuz **(guztira 5 ekintza euskararen komunikagarritasunaren arloan)**.

**9.-** Euskararen auzian **hizkuntza eskubideen** atala garrantzitsua da, eta handia da administrazioak horretan duen zeregina, erabakigarria: gero eta hobeto goazela bezain egia delako, oraindik ere asko dela egiteko geratzen zaiguna.

Jaurlaritzaren sail guztiek jarrera sendoa izango dute herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko eta bideratzeko. Agenda Estrategiko honen parte diren Erabilera Plan espezifikoa (Eusko Jaurlaritzarena, Osakidetza, EITBrena, Justizia Administrazioarena eta laster Ertzaintza) euskara lan hizkuntza izatera bideratutako egitasmoak bultzatzeaz gainera, arreta berezia jarriko da zerbitzu hizkuntza normalizatua eta orokortua izan dadin, ororen gainetik errespetatuz herritarren hizkuntza eskubideak –euskara edo gaztelania, beraiek aukeratutako hizkuntza erabiltzeko eskubidea, alegia.

Administrazioaz gain, enpresa pribatuek ere hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoa eta jarduna bere egin ditzaten lan egingo dugu. Nolanahi ere, biztanleria da, herritargoa, honen guztiaren protagonista. Herritarrak dagokion administrazioaren babesa sumatu behar du, eta horretarako baliabideak garatuko ditugu. Lan ildo honetan garrantzitsua izango da Elebide eta Arartekoaren elkarlana **(guztira 15 ekintza hizkuntza eskubideen arloan)**.

**10.-** Beste alor batera pasatuz: **euskarazko jardunaren erakargarritasuna eta prestigioa** areagotzeko lan egingo dugu. Erakarmena eta prestigioa eskutik doazenez, euskara prestigiatzen duten jarduketak bultzatuko ditugu, gizartean lidergoa duten pertsonen eta erakundeen praktika onak sustatuz, irudi positiboa sustatuz, irudi ezkor eta liskar girokoak alboratuz **(guztira 8 ekintza prestigioaren arloan)**.

**11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak** ezinbestekoak ditu euskarak ere, gizarte erabileraren erronkari eusteko, zer esanik ez gazteen artean. Euskarak baditu, alor honetan, indarguneak, hemengo bertako sortzaile eta erabiltzaileen dinamismoari esker, eta indargune horien garapena sustatu beharra dago. Beste zenbaiten artean, Interneten euskarazko edukia sustatzea edo .eus domeinua sustatzea eginkizun ditugu **(guztira 20 ekintza IKTen arloan)**.

**12.- Hizkuntza politikaren inguruko akordioarena da beste ekimen-eremu bat.** Konbentzimendu bat daukagu: adostasun sozial eta politikorik zabal eta sendoena dela euskara biziberritzeari haizea eman diezaiokeen hausporik indartsuena. Ikuspegi horretatik, euskararen gaineko diskurtsoen kontrastea eta hurbiltzea, edo herritarren euskararekiko jarrera eta motibazioen mundua, eginkizunen artean izango ditugu **(guztira 2 ekintza sakon eta iraunkor hizkuntza politikarekiko adostasunaren arloan)**.

**13.- Azkenik, kanpo proiektioa:** Alor honetan, Eremu Urriko Europako Hizkuntzen Itunak aurreikusten dituen lau kanpo esparruetan lan egingo dugu: batetik, euskararen lurraldeetako erakundeekin -Nafarroako Gobernuarekin eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin-

eta tokian tokiko euskara eragileekin elkarlanean; bestetik, euskararenganako ezagutza eta estimua handitzeko Estatuko administrazioak bere eginkizunak bete ditzan saiatuko gara; hirugarrenik, nazioarteko foro, topagune eta sareetan presentzia aktiboa izaten jarraituko dugu; eta, azkenik, garapenerako Euskal Agentziaren bitartez nazioarteko kooperazioaren alorrean kooperazio linguistikoaren kontzeptua landu eta baliatuko dugu (**guztira 13 ekintza kanpo proiektzioaren arloan**).

**Amaitzeko, beraz, ideia hauek azpimarratu nahi ditugu:**

Euskararen Agenda Estrategikoa Jaurlaritza osoaren plana da eta hizkuntza politikari bete-beteko zeharkakotasuna ematen dio (dagoeneko hartuak ditugun erabaki estrukturalekin batera: Eusko Jaurlaritzako Saitetako Euskara Atalak).

Izaera honekin euskal erakunde nagusietan egin den lehenbiziko plana da eta hizkuntza politika eraginkor eta sostenible baterako aitzindaria izan daiteke.

Euskara biziberritzearen alde lanean ari diren erakunde, pertsona eta aditu askoren artean landua eta onartua eta Jaurlaritzak eta Legebiltzarrak onartua eta bere egindakoa den ESEP dokumentuan dago oinarritua. ESEPEk Jaurlaritzaren eskumen-eremuan ezartzen dituen eginbeharrak jasotzen ditu, legealdi osorako gida eratuz.